




Ziur aski, gutako askok eta askok, Goiko plazako pilotalekuaren atzekaldetik edo eta Bazengaraia futbol zelai ondotik pasatzean, zuhaitz eta lorez betetako berdegune bitxi bat ikusi izan dugula, eta behin baino gehiagotan, norbait lanean segaz belarra mozten, atxurrez lura jorratzen edo eta kimaketetan. Lezoko HAZITOKIAZ ari gara.

Hazitoki hau nolabait sakonago ezagutzeko, hau aurrera ateratzen ari diren gazte talde batekin elkartu gara Txerrimuñon bai hazitoki bai orokorrean zuhaitzen egoerari buruzko zenbait galdera zuzendu dizkiegularik.

Denóntzat atsegina eta interesgarria izango delakoan gaude.

LEZO: Has gaitezen hasiera hasieratik, noiz eta nola sortu zen Hazitokia?

HAZITOKIA: Gutxigorabehera orain dela hiru urte inguru hasi ginen. Garai haietan, Gaintxurizketan dagoen eremu batean genbilen, Antxilastegin, eta lekuaren urruntasunak zenbait arazo sortzen zituen, batez ere lan tresnak igozteko garaian. Honela bada, hurbilago zegoen leku baten beharra somatu zen.


Bestalde, landatutako landare asko, aritzak gehienbat, norbaitek gaiztakeriz moztu egin zizkiguten. Horrela bada, gaur egun hazitokia dugun leku hori begiztatu ondoren hor hastea pentsatu genuen. Baina garai haietan leku hori lur jota zegoen, dena hondakinez beterik. Udalarekin hitzegin ondoren ahozko konpromiso antzeko bat hartu zen, gure helburuak zeintzuk zien argitu eta gero.

Egia esan ideia Txerrimuñotik atera zen, beste aktibitate baten modura eta lur horrek ez zuenez ezertarako balio, ba ez genuen inongo oztoporik izan berehala lanean hasteko. Tailer moduko hau interesatua zegoen jendeak ikasteko baliogarria zen eta era berean, hor hazitako landare eta zuhaitzak kalean edo mendian jartzeko aukera ematen zigun. Gogorik ez zen falta eta landarek ere berehala hasi ziren ugaritzen, jendeak ekarritakoak, guk buldutakoak...

L.: Nola funtzionatzen duzue? Zenbat jende zabiltzate horretan?

H.: Orain arte, jendearen parte hartzea lanaren araberakoa izan da. Hasiera batean, kriston lana zegoen lurra gutxieneko baldintza batzutan jartzeko, lehen esan bezala «eskonbrera» bat zen eta. Hormigoizko blokeak, harri pilo bat, piskanaka piskanaka kentzen joan ginen eta hazitokiariari itxura dexente bat ematen. Garbiketa egiten makina bat jende aritua izan da eta makina bat izerdi bota ere bai.

Lurrean terraza moduko batzuk egin genituen eta kanpotik ekarritako lurra bota. Lur hori aberasteko gotza ere bota behar izandu genuen. Hazitokia ixteak



ere bere lana zekarren baina egindako lana mantentzea nahi bagenuen egin-beharrekoa. Horrek ez du esan nahi leku pribatu bat denik, azken finean zabalik bait dago norbaitek ikusi edo zerbait egin nahi badu.

Behin martxa hartuez gero mantentzeko lanak dira gehienbat eginbeharrekoak, belarra moztu, txukunketak, lur jorraketak, kimaketak..., eta neguan berriz leku aldatze eta egokitzeak, hazi berria ereintzea, etab. Esan daiteke bere martxa hartua daukala.

L.: Zeintzuk dira topatu dituzuen oztopo nagusiak?

H.: Orain arte edukitako arazoen artean jendea kontzientziaztea eta tresneri falta izan dira gehienbat. Orain berriz oztopoa proiektu berria da, hazitokia arriskuan jartzen bait du.

L.: Eta jendearen aldetik?

H.: Jendeak orokorki begionez ikusten duen gauza bat da. Azken finean lekua errekuperatu egin da. Jendeak landare berriak ekartzen dizkigu, edo eta ez da harritzekoa jendea zerbait galdetzera etortzea. Batek baino gehiagok ondoko lur eremua berreskuratzeko ere eskatu izan digu. Baina beno, denetarik dago, lurra lapurtzera eta zaborra botatzera etortzen direnak ere baditugu.

L.: Hala eta guztiz ere laguntzarik izango zenuten ezta?

H.: Dudarik gabe laguntza haundiena bertan lana egiten duen jendearengandik datorkigu. Bestalde, zenbait gauza Udalaren bidez egin dira, batez ere diru aldetik, kanpoko sarea erosteko, lurra ekartzeko, gotza erosteko, etab.

L.: Lehen zertxobait agertu bada ere, sakondu dezagun piska bat. Zeintzu dira zuen helburuak?

H.: Ba, helburu nagusiak bi lirateke. Bata heziketarena eta bestea gauzak egiteko beste modu bat badagoela demostratzea.

L.: Explika dezakezue hori hobeto?

H.: Ba, begira. Zenbait landare hemen egin daitezke eta landatutakoak baldintza on batzuk beharko lituzke. Gaur egun, alde horretatik axolagabekeria haundia dago. Dirua gastatzen da baina gero ez dira behar bezala zaintzen. Landatutako zuhaitzek GARANTIA bat behar dute, eta ez obra bat dagoela eta orain hemendik atera eta han sartu. Ikusi besterik ez dugu gauzak nola egiten diren. Baldintza batzuekin ongi egin litekeena lardaskatu egiten da. Obrak egin ondoren adibidez, hondakinen gainean lur hatzaparkada bat bota eta tiesto antzekoak egiten dituzte, polita egiteko helburarekin soil soilik.

Guk ere behin baino gehiagotan urte beteko lana pikutara nola bidaltzen digute ikusi beharra izangu dugu. Horregatik ematen diogu hainbeste garrantzi baldintzei eta ondorengo garrantia horri.

Beste helburua, hau ere oso garrantzitsua, jendea hezitzea litzateke. Nahiz haurrak, nahiz helduak heziketa baten beharra daukagu eta alde horretatik hustasuna izugarria da. Hauzo bakoitzean hazitoki bat jartzeko ideia ere hor dago, azkenik Lezok bere hazitoki propioa eduki dezan. Hala ere, ez dugu izan nahi «mano de obra barata» esaten dena. Jendeak ikasi eta ardura bat hartzea nahi genuke eta ez guk denon lana egitea. Erakusteko beti presta gaude.

L.: Hazitokian zentratuz, zein zuhaitz mota daukazue?


H.: Landare aldetik mota desberdin pilo bat dago, bai zuhaitzetan, bai zuhaixketan. Hale ere komenigarria litzateke bereizketa txiki bat egitea. Batzuk experimentazio moduan daude, nola ugaritu daitezken ikasteko etab.; landare txiki asko dago baita ere, beste lekuetan landatzeko eta azkenik hazitokian bertan sustraituak daudenak, betirako hor gelditzeko daudenak.

Desagertzeko zorian dauden zenbait zuhaitz ere baditugu, muestra modura.

Orokorrean, zuhaitzen kopurua 150 inguru ibiliko da: MAXAKANA, HALTZA, GEREZIONDOA, ERRAMUA, PIKONDOA, UDAREONDOA, MUXIKA, ARITZA, GAZTAINONDOA, LIZARRA, ASTIGARRA, PLATANONDOA, SAHATSA (mota desberdinak), MAKAL, ARKAZI, ARANONDO eta abar luze bat.

Bestalde, bere lore edo eta fruitu dotoreagatik apaingarriak diren zenbait zuhaixka ere badaude eta hazitokia apaintzeko zenbait lore ere (kalak, ortensiak, krisantemoak, arrosak...).

Hala ere ongi legoke aipatutako zuhaitzen artean beste bereizketa bat egitea. Beste lekuetan berlandatzeko direnen artean bi zuhaitz mota berezi ditzakegu: bata hazitik sortutakoa, astigarraga, lizar eta makalak adibide moduan aipa ditzakeglarik. Beste motakoak berriz zuhaitzen adarren bidez ugaritzen dira, sahatsak, platanondoak... Askotan zuhaitz txikian mintlegi naturaletatik ekartzen dira. Adibidez, Altamirako makalen azpian makal txiki berri asko ateratzen dira, bata bestearengandik oso hurbil. Handik atera eta hazitokian haundi daitezke, indar piska bat hartu eta sendotu ondoren, betirako izango duen lekuan landatzeko. Hormetatik igotzen diren landaren mota batzk ere baditugu (Huntzak...).



L.: Nola ikusten duzue zuhaitzen egoera hemen?

H.: Iluna, oso iluna. Eta ez hemen bakarrik Lezon, Donostian, European... bide berdintsua daramagu. Hor dago hain kaltegarria den euri azidoa, baso suntsiketak, suteak, oreka naturala puskatzen ari denez, gero eta maizago agertzen diren gaitzak...

Hemen zehazki hor daukagu oraindik Iberduero, honek anhidrido sulfurosoa botatzen du eta urarekin nahasturik azido sulfurikoa sortzen duena. Badi-ra Jaizkibelen punta erreta daukaten pinu ugari.

Bestalde, azken urte hauetan egiten ari diren proiektu haundi horiek kalte haundia ari dira egiten, zenbait baso txikituz. Hor dugu Gaintxurizketako adibide negargarria, bertan pabeloiak egiteko haltzen bibero natural bat suntsitu bait dute.



Gauza ez da dena izoratu eta gero hain itsu-

Hazitokia hasi berria zegoenean orain dela 3 urte gutxigorabehera

sia ez geratzeko lau makil jartzea, lekuak errekupe ratzen joatea baizik. Baina zuhaitzeganako mesprexua izugarria da eta objektu bat balitz bezala tratatzen zaio, polita izateko beste gauzak kontutan hartu gabe. Zuhaitzekiko errespetoa galdu zen.

Horrelako proiektu batek hain zuzen ere kolokan jartzen du Hazitoki honen jarraipena.

L.: Eta etorkizunari begira?

H.: Beno, hor badago proiektu bat, «SISTEMA GENERAL 1» delakoa, gu kontutan hartu gabe onartua izan dena. Eskolaren inguruko proiektuak kalte haundia egingo dio hazitokiari. Nahiz eta Eskolak ez ikutu, proiektu honen barruan Gillermo Lazon kalea luzatzeak, zementozko parke borobil batek eta eskailera batzuk hazitokia mermatua eta loretoxi txiki baztertu batean bihurtuko luke.

Jendea ez da konturatzen eskola ondoan ere horrelako historio bat primeran letorkigukela. Asko hitzegiten da heziketa faltari buruz. Ba alde honetatik ongi legoke hazitokia txikitandik ikasten hasteko. Erabilgarria litzatekeela esan nahi dugu, beste tailer baten modura edo, zergatik ez, asignatura bezala

L.: Hori oso ideia polita da, baina prest egongo al zinateke horrelako zerbait egiteko?

H.: Beno, hasieratik esan dugu hazitokiaren helburu nagusi bat heziketa zela. Gutako jende askok ikasi nahi zuen eta horretarako ez da experto bat izan beharrik.

Argi dagoena zera da: eskolan Natur Zientzietan 5.ikasgaia ikasi ondoren jolasorduan haurrak zuhaitzak puskatzen ikustea ez dela gauza oso arraroa, eta horrek zerbait esan nahi du, eskola eta errealitatea oso urrun daudela alegia. Hobe lukete gehiago hurbildu.

L.: Fruiturik ematen al du hazitokiak, lanaketarik egin al duzue Lezon edo Jaizkibelen?

H.: Egia esan oraindik ez dugu hazitokitik gauza askorik atera. Landare txiki asko dago eta horjarraitu behar dute piska bat indartu arte. Orain arte, urte bat

edo biko landareak ditugu berlandatzeko eta ez badira leku seguru batean berlandatzen, errespetorik ez dagoenez, ongi mantentzeko baldintza batzuk gabe, lana alferrikakoa litzateke. Zailena ez da lekua topatzea, ondo manenduko diren garantia minimo bat edukitzea baizik.

Aurten eta datozen urtetan landaketa gehiago emango dira. Hala eta guztiz ere, esan beharra daukagu hazitokia zuhaitzen inguruko lanaren zati bat besterik ez dela. Landaketak eginak ditugu baina hazitokiko landareaz ez, beste lekue-tatik lortutakoak erabiliz.

L.: Adibidez.

H.: Ba, futbol zelai inguruan, Pysben, makal eta haltzak, Altamiran lizar dexente, Zubitxo errekarri gelditzen zaizkion erribera exkaxetan, Andreone inguruan, Zubitxoko parkean, portuko maldan, zenbait lorategietan...

Jaizkibelen ere landatu izan ditugu baina suak gehienak kixkali zituen. Gaz-tainondoak ere landatu genituen.

Antxillastegikoak ere han daude. Hango lurra, Jaizkibelen magalean dagoenez, mendikoaren berdintsua da eta askoz ere egokiagoa mendian landatzeko diren landareak hasteko.

L.: Proiektu berririk ba al duzue?

H.: Hazitokiari dagokionez, neguan aldaketak egin behar dira, orain bait da horretarako garaia. Denborarekin txabola bat egin nahi dugu, tresnak, man-gerak, haziak etab. gordetzeko eta usotoki bat egiteko asmoa ere badag.

Bestale, hazitokiaren zati bat oraindik nahiko pobre dagoenez, hondakin eta harriak kendu, lur berria bota eta hobeto erabiltzeko asmoa daukagu. Berririo balla jartzeko asmoa dugu eta horretarako udalari eskatu diogu dirulaguntza.

Bestalde, Jaizkibelen magalean, badago diputazioak zaintzen ez duen he-rrilurra. Alde batetik Larraka baserriko lurrekin, bestetik Elortegikoarekin eta aldetik Guadalupera doan pistak mugatzen duen hektarea batetako lurra da. Udalari baimena eskatu eta dagoeneko lanean ari gara, zati bat hartu eta pro-zesu naturala jarraituz hemengo zuhaitzez berpoblatzeko helburuz. Momentuz otea eta iratzea moztuz txukunketetan gabiltza, berehala, bildu ditugun hazi desberdinak landatzeko.

Komenigarria litzateke lur hori ere ixtea, ardiak, berpoblatutako lurretan libre ibili eta hondamendi haundiak egiten bait dituzte. Tresneria ere behar dugu horretarako laguntza eskatzen dugu.

L.: Amaitzeko, kontatuko al zenigukete hazitokian gertatutako anekdotaren bat?

H.: Beno, anekdota ugari izaten dira. Kanpotik etorri izan da jendea hazitokia ikustera batez ere bailarako euskaltegi eta barnetegietatik. Beste behin, Altea izeneko landareak norbaitek hazitokian usten zituen landatzeko eta inoiz ez dugu jakin nork usten zituen.

NORBAITEK SAKONKI IKUSI NAHI BALU, GU PREST GEUNDEKE ERAKUSTEKO.

